

Berbarotarra

Elkar mugituz egin dugu



Herritarren eta entitateen mugimendua izan da Euskaraldiaren laugarren edizioaren lorpen nagusia. Aurrekoetan baino batzorde gehiago sortu dira Euskal Herriaren luze zabalean. Durangori dagokionez, batzordean parte hartu duten herritarrak zein antolatutako ekimen kopuruak gora egin dute. Ekimenek arrakasta handia izan dute, eta jendetzak hartu du parte Durangoko ekin-tzetan. Positiboa da esaten ari garen guztia, euskaltzaleak aktibo eta euskararen egoera eraldatzeko gogoz eta indarrez baikaude. Azkenengo urteetan hizkuntza politiketan behar beste aurreratu ez, eta euskararen aurkako oldarraldi betean gauden honetan, euskaltzaleok badugu lanerako gogoa.

Urte hasiera zen Euskaraldia San Agustinen aurkeztu zenean, jendez lepo zegoen hallean. Orduraz geroztik ekimen andana egin ziren Euskaraldia girotzeko: auzo aurkezpenak, ikastetxeekin herria xaxatzeko ekimena, Kike Amonarrizzen solasaldia, horma-irudia, lokala zabaltzea, lelo lehiaketa...

Euskaraldiaren 11 egunak ere mugimenduz beteta igaro ziren: aurkezpena eta erromeria, Alde Zaharrean jai egitaraua, ume eta gazteentzako jokoak, mintzodromoa, pintxo-potean euskara sustatzeko dinamika, etab.

Hizkuntza ohiturak aldatzeko komunitatea indartzea eta giro egokia sortzea beharrezkoa delako egin zen aurretik aipatutako guztia. 152 entitatek eta 2220 durangarrek eman zuten izena Euskaraldian, eta hizkuntza ohiturak aldatzeko ariketan murgildu ziren. Askok lorpen positiboak izan zituzten, ezusteko politikak ere bai, estres linguistikoak buruko min ugari sortu zizkien, eta hizkuntza ohiturak aldatzeko zailtasunak ere, zoritxarrez, ez ziren gutxi izan.

Handia egin dugu berriz ere. Hizkuntza ohiturak aldatzeko pausoak eman, euskarazko guneak eta uneak sortu, euskaltzaleak saretu, entitateek konpromisoa hartu, euskaldunak aktibatu... eman diezaiogun duen balioa!

Aurrerantzean ere jarraitu dezagun hizkuntza ohiturak aldatzen eta euskaraz gehiago, gehiagotan eta gehiagorekin hitz egiten, baita Euskaraldiaren gisako ekimenak antolatzen ere. Horietara herritarrak gogoz eta euskara bultzatzeko grinez helduko gara, eta hizkuntza politika sendoeekin heltzen bagara, handia egiten jarraituko dugu.

Badatoz Durango eta inguruetako ume eta gazteentzako udalekuak!

Gutxi falta da aurtengo udalekuei hasiera emateko. Urtero legez, aurten ere 5 udaleku antolatu ditugu. Etxeko txikientzako Udan Olgetan, ekainaren 23tik uztailaren 24ra, eta iazko antzera Jarraitu Olgetan egongo da uztaileko azken lau egunetan. Udaleku itxiei dagokienez, Larraulgo etxea utzi eta Uitzira joango gara ekainaren 27tik uztailaren 6ra LH 3-4ko umeekin. Ohiturekin jarraituz, Mendigorrian egongo gara uztailaren 9tik 20ra LH 5 eta 6ko gaz-

tetxoekin. 12 urtetik aurrerakoentzat ezagunak ditugun udaleku ibiltariak prestatu ditugu: alde batetik, Ibiltari txikia (Oiartzun-Elgoibar), DBH 1 eta 2koentzat, ekainaren 28tik uztailaren 9ra; bestetik, DBH 3-4 eta Batxi 1ekoentzat, Ibiltari handia (Zumarraga-Lekunberri) uztailaren 11tik 22ra.

Aurten ere primeran pasako dugu Euskal Herriko txokoetan zehar.



Durangok ez dauka euskara teknikaririk

2024ko abenduaz geroztik Durangok ez dauka euskara teknikaririk, urte erdi ordezkorik gabe. Horrek berak alarma guztiak pizteko berria behar lukeenean, euskara teknikaririk aurrerantzean izango ez dugula jakitea are mingarriagoa da.

Larrialdi linguistikoan dagoen hizkuntzaren normalkuntza prozesua gidatzea dagokio euskara teknikariari, Ermuan, Lizarran edo Bilbon, herrian garrantzia handiena duen erakundetik, Udaletik. Bertatik hasi eta herriko azken txokoraino.

Udalaren planteamenduak euskara teknikariaren profila kendu eta Euskara eta Hezkuntza arduraduna eta herritarren saileko koordinatzailea (euskara, hezkuntza, kultura, jaiak, gazteria eta kirola) izeneko lanpostua sortzea gura du. Begi onez ikusten dugu euskararen ardura duen udal teknikariak botere posiziotik dinamizazioan jardutea, baina, izango du tartea euskarari erreparatzeko hainbeste sail eta eginkizunen artean? Kontuan izan Eusko Jaurlaritzak Durangoren ezaugarriak dituen herri batentzat 5 langileko euskara saila gomendatzen duela.

GUKA udal gobernuarekin bildu zen, euskara teknikariaren profila mantentzea eskatzeko. Aurrerantzean ere lan egingo du, Durangok euskara teknikaria eta normalkuntza prozesuak behar dituen baliabideak izan ditzan.



Liburu banaketa Durangaldeko txokoetan zehar

Urtero legez, Liburuaren Nazioarteko Egunaren harira, liburuak opari-paperean bildu, mezu bana jarri eta banaketari ekin diogu.

Berbaroren Haur Literatura Aretoa Durangaldeko herrietan egiten dugula aprobetxatuta, eta jarraipena emateko asmoz, proiektu honetan erabilitako liburuak Durangon bakarrik banatu beharrean, 400 aletik gora banatu ditugu, Zornotza, Elorrio, Zaldibar, Atxondo, Garai eta Iurretan, besteak beste. Banaketa apirilaren 28an egin genuen, apirilaren 23a udaberriko opor eguna zelako oraindik.

Oro har haur eta gazteentzako liburuak izan dira, baina tartean helduagoei zuzendutakoak ere egon dira. Gure helburua beti da euskarazko literatura sustatzea eta irakurzaletasuna bultzatzea. Liburuok zabaldu, irakurri eta partekatzeraz animatu nahi izan dugu jendea.

Oso feedback ona jaso dugu eta posible ikusten dugu datorren urtean ere dinamika bera jarraitzea.



Julene Azpeitia Lehiaketaren 42. edizioa

Durangoko Udalak Julene Azpeitia ipuin, olerki eta bertso lehiaketa antolatzen du 1983. urteaz geroztik. Aurten 42. edizioa izan da. Sariketarako literatura eta sormena bultzatzea du helburu, haur eta gaztetxoen artean, batez ere.

Lehiaketan Durangoko eskoletako gazteek eta kanpoko eskoletan ari diren gazte durangarrek hartu dute parte; 18 urtetik gorakoek sailean berriz, ez dago lurraldetasun irizpiderik.

Lanak martxoan eta apirilean jaso ziren. Ondoren, maiatzean epaimahaiak bere erabakia hartu zuen. Hala, ekain hasieran sarituen izen-abizenak ezagutu genituen. Sariak, adin-tarte eta sailaren arabera dira.

Sari banaketa ekitaldia ekainaren 15ean izan zen, eguerdiko 12:00etan, Durangoko Arte eta Historia museoan. Bertan, irabazleek diploma jaso eta beren gertukoekin gozatu ahal izan zuten.

Saritutako lan guztiak antolatzaileen esku geratuko dira eta Udaleko Euskara Saila arduratuko da horiek argitaratzeaz. Durangoko Azokan egongo dira eskuragarri.





VI. Hirukoa eta V. Labur esanda 2025 honetan

Berbaro elkarteak 2025ean ere sormenaren eta kulturaren aldeko apustua egin du, eta urteroko bi lehiaketa arrakastatsuak antolatu ditu: Hirukoa eta Labur Esanda. Biak Plateruena Kultur Aterpean egin dira, eta parte-hartze handia izan dute.

Otsailaren 7an egin genuen Hirukoa lehiaketaren seigarren edizioa. Guztira, 20 hirukotek hartu zuten parte. Beste behin ere, aurkezpen lanetan Mirari Zugazartaza eta Gorka Madrazo izan genituen. “Kafezaleak” taldeak irabazi zuen, duela bi urte bezala. Lehiaketa honen helburua da Durangaldeko jendearentzat ondo pasatzeko espazio euskalduna sortzea.

Apirilaren 5ean, berriz, Labur Esanda film laburren lehiaketaren bosgarren edizioa izan zen. Parte-hartzaileek formatu laburreko ikus-entzunezko lanak sortu eta aurkeztu zituzten. Guztira 700 euro banatu ziren saritan. Berrikuntza gisa, 20 urtez beherakoentzat sari berezi bat banatu genuen. Lan bakoitzak guk ezarritako ezaugarriak bete behar zituen: gaia “obsesioa”, objektua “katea” eta esaldia “Ez da berdina, baina berdin da”. Epaimahaia Xabier Zabala, Ainhoa Olaso eta Ainhoa Zabartek osatu zuten, eta lehen saria Bergara eta Oñatiko “Sanpru” taldeari eman zioten, “*Bi Erreal*” film laburragatik.

Bi lehiaketa hauek Berbaroren urteroko programazioan ezinbesteko bihurtu dira. Durangoko eta Durangaldeko euskarazko sorkuntza bultzatzeko eta kultur zaletasuna bizirik mantentzeko topagune sendoak dira. Giro aparta eta parte-hartze handia ikusita, elkarteak datorren urteetan ere lehiaketa hauek antolatzen jarraituko du, eta herritar guztiak parte hartzera gonbidatzen ditu.

ZerNon Ikusi.eus

Edukiak kontsumitzeko modua aldatu da eta beharrezkoa da euskarari Interneten tokia ematea, euskal hitzunez, haurrek, gazteek zein helduek, euskaraz kontsumitzeko aukera izan dezaten.

Bide hori errazteko helburuarekin sortu dute **ZerNonIkusi.eus**.

Zer da ZerNonIkusi edo ZNI? euskarazko web ataria da, plataforma digitaletara euskaraz bikoizturik dauden film, telesail eta dokumentalen bilaketa errazten duena. Horrez gain, streaming plataformetan euskaraz zer aurki daitekeen erraz kontsultatzeaz gain, zinemetako estreinaldien inguruko informazioa ere aurki dezakezu.

Animatu eta euskaraz kontsumitu!

